




Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

**ELIZA,
JESUSEN
FAMILIA**

**B SAIOA
GURASOENTZAT PARROKIAN**

**Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**



**"Denak apostoluen irakaspenak entzuteari eta elkarte-bizitzari emanak bizi ziren, ogi-zatitzea eta otoitza elkarrekin egiten zituztelarik"
(Eg 2, 42)**

1. Helburua

- Eliza Jesusen jarraitzaileen elkartetzat aitortu

2. Helburu bereziak

- Guztiok batera Jesusen familia handia, Eliza, osatzen dugula konturatu.
- Eliza Jesusen adiskideen, jarraitzaileen familia bezala ikusi.

3. Saioak

- B saioa, gurasoentzat parrokian.

4. Aurkituko duzuna

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saioaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

B SAIOA. GURASOENTZAT PARROKIAN



Motibazioa

- Guztiok batera Jesusen familia handia, Eliza, osatzen dugula konturatu.



Azpimarrak

- Eliza gara, Jesusen jarraitzaile garelako.
- Eliza, Jesusen jarraitzaileen elkarte. Hasierako kristauak elkartean bizi izan ziren eta geu ere elkarte horretako kide gara.



Idea nagusiak

- *“Denak apostoluen irakaspenak entzuteari eta elkarte-bizitzari emanak bizi ziren, ogizatitzea eta otoitza elkarrekin egiten zituztelarik”* (Eg 2, 42-47) pasartea da saioko ardatza.
- Jesusen atzetik jarraitzen dugun guztiok Eliza den taldearen barruan gaude; beraz, Jesusen familia gara.



Ezinbesteko lagungarriak

- Eg 2, 42-47 Bibliako pasartea, Bibliako txatala edo Edebe Bibliatik hartutakoa (461. or. eta hur.)
- Eliza hitza (I. eranskina)
- Elizaren irudia, harrera Jainkoaren besoetan (III. eranskina)
- Kartulina edo 'kraff' papera
- Parrokiaren argazkia
- Paper-tirak taldeen izenekin

Denbora hartu saioaren jardunbidea ulertzeko, eta aldez aurretik prestatu saioan behar izango dugun guztia.



Saiorako gida

Laguntzailearentzat...

Saioa lau unetan banatuko dugu:

- o 1. unea: agurra eta aurkezpena (10 minutu). 1-3 urratsak.
- o 2. unea: gaiaren azalpena (15 minutu). 4-6 urratsak.
- o 3. unea: “Eliza/Parrokia, elkarte” jarduera (25 minutu). 7-9. urratsak.
- o 4. unea: bilketa eta otoitza (10 minutu). 10-11 urratsak.



Lehen unea. Agurra eta aurkezpena

Katekistak, bildutakoak agurtu ondoren, aurreko gaia gogoratuko du. Guraso eta anai-arrebok osatzen dugun familiaren gaia landu dugu, gune garrantzitsu dela ondorioztatuz. Gaur, beste urrats bat emango dugu, familiaren ikuspuntua zabalduz. Izan ere, kristauok familia handiago bateko kide gara, Elizako kide. Familia handi honetan, adin, arraza, herri eta kultura guztietako pertsonak daude. Guztiok bat gatoz, hori bai, honako honetan: Jesusen jarraitzaile gara.



1. urratsa. Eliza gure familia dela azalduko die laguntzaileak gurasoei. Horrezaz gainera, familia handi horretan nola izan gaitzkeen bizilagun, kide eta nola bana dezakegun ikusiko dute.

“Eliza” hitzaren irudia (I. eranskina) erabiliko dugu bere esanahia zein den ikusteko.



2. urratsa. ‘Eliza’ hitzaren irudia banatuko diegu, beraientzat Eliza zer den idazteko eskatzeaz batera.

Minutu batzuk eman idazteko eta, ondoren, batera jarri.

Definizioa: ‘Eliza’ hitza grekotik dator eta batzarra, bilera, taldea, herria... adierazten du eta denok batera osatzen dugu Jainkoaren herri hori.



3. urratsa. “Nire familia eta Eliza” bideoa ikusiko dugu. Ondoren, iritziak, azalpenak..., batara jarriko ditugu.

**Irudian
klik egin
ikusteko**



Bigarren unea. Gaiaren azalpena



4. urratsa. Orain, Bibliara joko dugu “hasierako kristauen bizitza” ezagutzeko: Eg 2, 42-47.

- Kontaketa hau **Edebe Biblian (461. or.)** edo II. eranskinean aurkituko dugu.

Laguntzaileak ozen irakurriko du idazkia.



5. urratsa. Kontaketa hori irakurri ondoren, entzundakoan sakondu egingo dugu, ondorengo galdera hauez baliatuz:

- Zer kontaktzen du Bibliako txatal honek?
- Zer esan nahi digu?
- Zein ideia azpimarratuko genuke, garrantzitsutzat jotzen dugulako?
- Ezer nabarmenduko genuke Elizaz?



6. urratsa: laguntzaileak ondorengo ideia hauek nabarmenduko ditu, gai honi dagokion “*Eranskina laguntzaile, katekista eta gurasoentzat*” agiriak baliatuz.

- *Jesusekin bat datorren elkarte*
- *Elkarte askatzailea*
- *Senideen elkarte*
- *Elkarte zerbitzaria*
- *Behartsuengandik gertu den elkarte*
- *Espirituak sustatutako elkarte*
- *Jesusen jarraitzaileak gaur*



Hirugarren unea: "Eliza/parrokia, Jesusen adiskideen elkartea" jarduera

Eliza, harrera Jainkoaren besoetan, irudikatu nahi duen III. eranskineko irudiaz baliatuko gara.



7. urratsa. Kartulina edo paper handian ('kraff' papera), parrokiaren irudia jarri (ahal izanez gero, koloretan, "GURE PARROKIA / NUESTRA PARROQUIA" izenburuarekin).

Adibidea



8. urratsa. Laguntzaileak galdera egingo die:

- Nork osatzen du parrokia? (parrokian dauden taldeak)
- Zer egiten da parrokian?

Minutu batzuek, elkarrizketan jardungo dugu horren inguruan.



9. urratsa. Ondoren, parrokiako taldeen izenak jasotzen dituzten paper-tirak erakutsi edo banatu. Ezagutzen ote dituzte talde horiek? Ba ote dakite zer egiten duten? Pertsona jakin batzuen izenak esan eta izen horiek parrokiaren argazkiaren inguruan jarri, elkarteko kide esanguratsu baitira.

Taldeek zer egiten duten, talde horietan nor dagoen, e.a., ez badakite, laguntzaileak emango dizkie bidezko azalpenak, talde bakoitzaren egitekoa eta taldeotan aritzen diren pertsonen izenak aditzera emanaz. Dinamikari amaiera emateko, parrokiako taldeen izenak itsatsiko ditugu kartelean.

Talde hauek izan daitezke:

- Katekesia
- Caritas
- Gaztetxo eta gazteen taldeak
- Jesusen taldeak
- Familia
- Osasun Pastoralta (gaixoei lagun egin)
- Liturgia
- Ekonomia
- ...

Guzti horiekin batera, denok Jesusen Eliza osatzen dugula esan dezakegu. (IV. eranskinaz balia gaitzke).

- Galdetu: **Gustatuko litzazuke parrokiaren parte hartzea?**

Laugarren unea: Bilketa eta laburpena



10. urratsa. Erdian jarriko dugu aurreko dinamikan erabili dugun parrokiaren irudia.

Hona hemen hainbat galdera, landutakoa jasotzeko:

- Zer egin dugu?
- Zer sentitu dugu?
- Zer ikasi dugu gaur?



11. urratsa. Isilunea egingo dugu. Kandela piztuko dugu, Jesus gure artean dela adierazteko. Gurutzearen seinalea egingo dugu Berarekin bat egiteko.

Jesusen irudiari begiratu...

Eta denok batera irakurri:


*Zure laguntzarekin, Jauna,
elkartean bizitzen ikas dezadala.
Horixe baita zure nahia,
eta besteekin bat eginda bizi nadila.
Zure laguntzarekin, Jauna,
eta apostoluek bezala,
elkarte izatea, besteengatik
eta besteentzat bizitzea,
beste batzuekin,
zure jarraitzaile diren
gizon eta emakumeekin,
bat egitea dela
jakin eta sentitu dezadala.*

Eta amaitzeko, "Somos una marea de gente" abestia entzungo dugu.

**Irudian klik
egin abestia
entzuteko**



I. eranskina.



II. eranskina

ITUN BERRITIK HARTUTAKO TXATALA: EG 2, 42-47

Denak apostoluen irakaspenak entzuteari eta elkarte-bizitzari emanak bizi ziren, ogi-zatitzea eta otoitza elkarrekin egiten zituztelarik.

Mundu guztia izaturik zegoen, apostoluek egiten zuten hainbat egintza harrigarri eta mirarirengatik.

Fededun guztiak elkarturik bizi ziren, eta dena denentzat zeukaten: beren lur eta ondasunak saldurik, guztien artean banatzen zuten dirua, nork zer behar zuen.


Egunero bildu ohi ziren tenpluan, baina ogia etxeetan zatitzen zuten, otorduak elkarrekin pozik eta bihotz xaloz eginez. Jainkoa goستن zuten, eta herri osoaren estimazioa zuten. Eta Jaunak egunetik egunera gehitzen zizkion elkarteari salbatzen zirenak.



III. eranskina.



IV. eranskina



**GU GARA
JESUSEN
ELIZA**